ZIUR FUNDAZIOAREN GRC (GOVERNANCE, RISK AND COMPLIANCE) RISK4ALL IRTENBIDEAREN MANTENTZE-LANEN BERRIKUNTZARI BURUZKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA (ESPTE. ZIUR2025017)

1. AURREKARIAK

Gaur egun, ZIUR Fundazioak GRC RISK4ALL kudeaketa-irtenbidea erabiltzen du, SaaS moduan. Zehazki, hau da kontratatutako lizentzia: RISK4ALL STANDARDPLUS – PRIBATUTASUNA/SEGURTASUNA MODULUAK (ARRISKUAK ETA ADIERAZLEAK HARTZEN DITU KONTUAN).

2021eko abenduan erosi zen lizentzia, eta lau urte igaro ondoren, beharrezkoa da euskarria eta mantentze-lanak berritzea, zerbitzuarekin jarraitu ahal izateko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Datozen hiru (3) urteetan GRC RISK4ALL STANDARDPLUS tresnaren lizentziaren mantentzeko zerbitzua berritzeko kontratua arautuko duten baldintzak zehaztea da Baldintza Teknikoen Agiri honen xedea.

3. KONTRATUKO PRESTAZIOEN DESKRIBAPENA

RISK4ALL lizentziaren STANDARDPLUS modalitatea berritu behar da. Hauek dira lizentziaren ezaugarriak:

Deskribapena:

Risk4all tresna GRC motako web-irtenbide bat da, pribatutasunaren arloan, informazioaren segurtasunaren eta zibersegurtasunaren arloan eta beste zenbait arlotan (adibidez, negozioaren jarraitutasuna, produktuen kalitatea, zerbitzuen kudeaketa eta enpresa-arriskuen kudeaketa edo “compliance” delakoa) euskarria ematen duena.

Erakunde anitzeko web-aplikazio horrek hainbat lan neketsu bateratzen laguntzen die profesionalei; besteak beste, hauek: arauen betetzea, kudeaketa-sistemak martxan jarri eta mantentzea, arriskuen kudeaketa, gobernua, monitorizazioa eta ikuskaritza eta ebaluazioak eta auditoretzak.

Berritu beharreko lizentziaren modalitateak:

- STANDARD PLUS: azpiegitura partekatuko “Cloud” pribatua, ORGANIZACIÓN, risk4all.com motako domeinu propioarekin eta aplikazio eta datu-base propioekin.

Funtzionalitate orokorrak:

  - Ekintza-plan zuzentzaileak, arriskuen tratamendurako planak, hobekuntza-planak, segurtasun-zuzendarien planak… ezartzeko ekintza-planak eta proiektuak,.
  - Alerten kudeaketa
  - Hirugarrenen kudeaketa
  - Galdetegiak egin eta hirugarrenei bidaltzea
  - Adierazleak eta aginte-mahaiak
  - Helburuen kudeaketa eta plangintza
  - Dokumentuen kudeaketa
  - Kontrol-esparru pertsonalizatuen sorkuntza eta ebaluazioa

- **Kudeaketa-sistemen modulua**

  - Antolakuntza-arkitektura: zerbitzu eta prozesuetan oinarritutako modelatzea
  - Erakundearen testuingurua aztertzea
  - Batzordeen kudeaketa eta txostenak automatikoki sortzea
  - Rol, kudeaketa eta agintaritzen kudeaketa
  - Eskumenen kudeaketa eta segimendua
  - Aldaketen kudeaketa
  - Auditoretzak programatu, planifikatu eta gauzatzea
    - Rol eta/edo erabiltzaile/departamentuen arabera planifikatzeko aukera, sistemara sartuz, edo kontrolen banaketa Excel txantiloi baten bidez, ondoren zentralizatzeko.
    - Auditoretzako txostenak sortzea (txantiloi pertsonalizagarrian oinarrituz)
  - Auditoretzako emaitzen kudeaketa, desadostasunen bidez eta beste aurkikuntza berezien bidez, eta emaitza horiek ekintza-planekin lotzea.

- **Informazioaren segurtasuna (ENS, ISO/IEC 27001, ISO/IEC 27002, NIST CSF, ISO27701, etab.)**
  - Ebaluazioa eta auditoretzak
  - Aktiboen kudeaketa
  - Arriskuen ebaluazioa aitortutako kontzeptu eta metodologietan oinarrituta, eta pertsonalizatzeko aukerarekin:
    - Mehatxuen katalogoa
    - Aktibo motak
    - Inpaktu, probabilitate eta arrisku mailen parametrizazioa
  - Gorabehera eta etenen kudeaketa

- **Pribatutasuna**
  - Tratamendu-jardueren erregistroa
  - Eskubideen, erreklamazioen eta datuen babeserako ordezkariei egindako kontsulten kudeaketa
  - Arriskuen ebaluazioak eta pribatutasunaren gaineko inpaktua
  - Gorabehera eta etenen kudeaketa

Donostian,

ZIUR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA

Maria Penilla Azcuenaga

Firmado por PENILLA AZCUENAGA, MARIA (FIRMA) el día 01/10/2025 con un certificado emitido por AC DNIE 004